

Ordizian, **2010eko urriaren 29an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea
Jon Txurruka Etzezarreta jauna	PNV taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**


Auzmendi andrea "Galde-eskeen" puntuan joan egin da.

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

1.- 2010eko urriaren 1ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

.....**3.orr.**



2.- 2010eko urriaren 18an egindako ez-ohiko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.	4.orr.
3.- IU/EB-ARALAREk aurkeztutako mozioa, "Oiangu Bizirik"i epaiketa gastuak barkatzeari buruzkoa.	6.orr.
4.- "Oiangualde 30" HIEko b.20.1. lursailaren xehetasun azterketa behin betiko onartzea.	12.orr.
5.-Oiangualde b.20.1. lursaileko 9.1 azpilursailaren azalera eskubidearen esleipenerako Klausula ekonomiko-administratiboen Plegua onartzea Esleipenerako lehiaketaren oinarriak onartzea	17.orr.
6.-2011ko ekitaldirako taxien tarifak onartzea.	20.orr.
7.- Udaleko izaera pertsonaleko datuen tratamendurako Segurtasun Agiria aldatzea.	22.orr.
8.- Oianguren eraikina eta haren baitakoak aprobetxatu eta ustiatzeko esleipenaren inguruko ebazpena.	12.orr.

## **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK**

### **GORABEHERAK**

### **GALDE-ESKEAK**


.- Bidegorri-tarteei buruzko informazioa.	
.- Irigarritasun-laguntzetarako araua.	
.- Tabernei eta jatetxeei buruzko ordenantza.	
.- Udaltzain zerbitzuari buruzko zenbait galdera.	
.- Gazteria Teknikaria.	
.- Publizitatearen Arandia ez betetzea.	
.....	23.orr.

### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA ORDUA: 8,05**

**BUKAERA ORDUA: 11,00**





Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman da.

## **1.- 2010eko urriaren 1eko ohiko bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

**2010eko urriaren 1ean ohiko deialdian egin zen bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

#### Idazkari and.

Esan su 2010eko uztailaren 23ko aktan, 2010eko urriaren 1eko ohiko bilkuran onartuan, Dubreuil jaunak, HELDU zerbitzuari buruzko puntuan, idazkari andreari aipatu ziola bere hitzak ez zirela behar bezala jaso. "Osoko bilkuraren" grabazioa entzunda, idazkari andreak esan du halaxe dela, Dubreuil jaunak esan bezala, bere hitzak honela jaso behar direla:

"Dubreuil jauna Mikel jaunari zuzendu zaio zuzenago, Aralar taldeko ordezkaria den aldetik, izan ere, betidanik kritikatu izan dute zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, baina baita EBri ere, hauek ere zeharkako kudeaketa kritikatu izan baitute. HELDU enpresa batek zeharka emandako zerbitzua da. Bere iritziz, orientazio berria edo iritzi aldaketa bada, ados, baina beti hala izatea eskatzen du, eta ez izatea bere egunean HELDU zerbitzua sortzea EBk proposatua izateagatik".

Zuzenketa egin da

#### Asenjo in.

Hautzaroa, Nerabezaroa eta Gazteria Sustatzeko Plana onartzeko puntuan bere esku-hartzea honako hau izan zela esan du:

"Bere iritziz, politikan edukia bezain garrantzitsuak dira manerak zaintzea. Dokumentua Aldundiko iheslariek landu dute, beraz, zalantzan jartzen dugu horren zilegitasuna, kontuan hartuta boto bakar bat ere ez duen alderdiak landu duela".


### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Auzmendi andrea ez zegoen bilkuran)



**Beraz Alkateak aipatutako aldaketekin proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

**2.- 2010eko urriaren 18an egindako ez-ohiko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2010eko urriaren 18an ez-ohiko eta presazko deialdian egin zen bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Asenjo jaunak

Esan du gaztelaniako eta euskarako aktaren 4. orrian, 2011ko tasak onartzeari dagokionean, Dubreuil jaunak esan zuela bere taldeak 2011rako tasen inguruko proposamena helarazi ziola alkate jaunari. Ez da halakorik jaso aktan, baina EAK ere helarazi zion bere proposamena alkateari.

Zuzendu egin da.


Kontu-hartzaile jn.:

Halaber, kontu-hartzaile jaunak esan du 1. puntuko akordio-proposamenean ("2011rako Zerga Ordenantzak hasiera batean aldatzea onartzea"), zerga-ordenantzak jasotzen dituen taulak ez dituela ibien prezioak jasotzen, eta horiek ere onartuak izan zirela.

Horrenbestez, akordio-proposamenean jaso beharko litzateke:

**B) 7. ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN IBI IRAUNKORRAREN TARIFA ALDATZEA.**

ZONALDEA	2011	hobari %
1	20,50	0,00%
2	15,38	25,00%
3	8,20	60,00%
4	5,13	75,00%



Informazio gisa hau ere bidali zen plenoaren deialdiarekin batera:

### IBI IRAUNKORRAREN TARIFA PROPOSAMENA

ZONALDEA	2010	2012	hobari %	2013	hobari %
1	45,00	20,50	0,00%	20,50	0,00%
2	45,00	20,50	0,00%	20,50	0,00%
3	45,00	12,30	40,00%	14,35	30,00%
4	45,00	8,20	60,00%	10,25	50,00%

Akordio proposamena zuzendu da, zehaztutakoaren arabera.

#### Idazkari andreak

Jakinarazi du, 6. orrialdean, "2011ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalen aldaketarako hasierako onarpenean" puntua gaizki jasota dagoela. 3. paragrafoan honakoa jaso behar zen: "Ibilgailuen sarrerari dagokionez, 20 € proposatzen dira ibilgailuko. Horrek esan nahi du, etxe adosatze batean prezioa ez dela hain altua izango, baina garaje kolektiboen sarreran prezioa hazi egingo da ibilgailu gehiago dagoelako, baina jende gehiagoren artean ordaintzen da hala ere (garajeetako jabekideak).

Zuzenketa egin da.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU-EB/ARALAR 1)

Kontrako botoak: 0


Abstentzioa: 1. Maiza andrea, Marañon andrea eta Leunda jauna abstenitu egin dira, ez zirelako bilkuran egon.

Asenjo jaunak ez du bozkatu.

**Beraz Alkateak aipatutako aldaketekin proposamena onartutzat eman du aipatutako aldaketekin.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:



### **3.- IU/EB-ARALARek aurkeztutako mozioa, “Oiangu Bizirik”i epaiketa gastuak barkatzeari buruzkoa.**

#### Proposamena

Ordiziako Udalak epaitegiak “Oiangu Bizirik” elkartearen administrazioarekiko Auki helegitea ez duela onartu jakinarazi die herritarrei. Izan ere, aipatutako erabakiari buruzko iritzia emanaz idatzia banatu du etxez-etxe.

Bistan da Oianguko parkearen etorkizunari buruzko gatazkak urte gehiegi iraun duela eta kostu político, jurídico eta ekonomiko oso handia izan duela. Bistan da, halaber, ordiziarrek parkearen erabilera eta garapenerako eredu ezberdinak defendatzen eta sostengatzen dituztela. Gaur arte behintzat, ahaleginak-ahalegin, alde biek lehengo lepotik burua jarraitzen dute.

Udalak Oianguko Parkea suspertzeko asmoarekin jarraitzen du eta nahiko luke iritzi ezberdina daukatenekin egun daukan norgehiagoka edo borroka elkarrizketa giro batean aurrera eraman, adeek dituzten iritzi eta proposamen ezberdinak elkarrekin aztertuz.

Epaitegiaren erabakiak izan duen ondorioetako bat, helegitea atzera botatzeaz gaitera, elkartearen prozesuko kostuak ordaintzera behartu duela izan da. Auzitan aritu izanak edota, bestela esanda, Auki-bideak ez du gatazka konpontzea lortu.

Udalbatzarra osatzen dugun Alderdi politikook ez dugu beharrezkoa ikusten ordiziar askoren ordezkari diharduen erakundea ekonomikoki itotzea. Indarra edo dirua ez dira, derrigorrean, arrazoia izatearen berme. Horregati, gatazka arintzeko balio dezan eta elkarrizketaren bidean lagungarri izan dadin, eta eskuzabaltasun handienarekin, ondorengoa erabaki dugu:

- Oiangu Bizirik elkarteak Udalarari prozesuko kostuengatik ordaindu beharreko 2.045,37 euroak barkatzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.


Esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

#### Gonzalez jn.

Mozioa zergatik aurkeztu duen azaldu du, eta udalbatzari ahalegina egin dezala eskatu dio, izan ere, Oianguren gaia oso eztabaidatua baita.

Mozioa berak idatzi duela esan du. Gobernuak, gobernu-batzordearen bileran, kostu judizialak plataformari kobratzea onartu zuen.

Esan du herritarren erdia, gutxienez, proiektuaren aurka dagoela, eta gobernu-taldearen gehiengoak defendatzen duen jarrerarekiko ideia alternatiboak dituela.



Bere iritziz, jende ugari mobilizatzen duen plataforma da. Beste entitate eta taldeei diru-laguntzak ematen zaizkie. Bere iritziz, kontua ez da plataforma itotzea. Aipatu du lortutako epaiengatik gobernu-taldearen gehiengoak izan duen pozaren ondoren, Ordiziako herritarrei postontzi bidezko informazioa helarazi zaiela, eta horrek 4.000 €-ko kostua izan duela. Bere iritziz, 'Oiangu Bizirik' plataformari ezarri zaizkion kostu judizialak barkatzea udalaren jarrera ona eta eskuzabala litzateke.

#### Alkate jn.

Bere iritziz, ez da plataforma itotzea. Bere iritziz, kostu judizialak ez dira gehiegizkoak, ez hondoratzeko edo itotzeko adinakoak, behintzat. Hala ere, bere iritziz, emakida jaso duen enpresa aipatuz, ekonomikoki hondoa jo dute.

Bere hitzetan, kostu judizialak barkatzeak aurrekaria ezarriko luke.

Arrazoa ez dute ez indarrak ezta diruak ere ematen. Bere iritziz, plataformak ez du garbi jokatu, ez dute egia esan, eta uneoro informazioa manipulatu dute.

Plataformaren aurkako 4 epai daude, eta, bere iritziz, ordiziarren erdia ez da ados egongo zor hori barkatzearekin.

Plataformaren eskuzabaltasuna non dagoen galdetu du.

#### Huesa andrea

Plataformaren ordezkari Edurne Huesa andreak hitza eskatu du, lanera joan behar baitu.

Zorra barkatzea eskatu du. Bere iritziz, plataforma zigortzen ari dira auzitegietara jotzeagatik. Alderdi politikoek herritarren parte-hartzean sinesten badute, justiziarako eskubidea dute. Emandako epaia ez da bidezkoa.

Esan du ez daudela, aipatu moduan, lau epai, hiru baizik. Auzitegi Gorenak ez du epairik eman; aurkeztutako helegitea ez du 'tramitera onartu'.


Bere iritziz, plataformak diru-laguntzarik jaso ez izanak plataforma itotzea dakar. Zorra barkatzea bizikidetzaren mesedetan litzatekeela pentsatzen du.

Halaber, osoko bilkuren ordutegiarekin ez dagoela ados esan du.

#### Maiza and.

Bere iritziz, plataformak, zenbaitetan, ez du edukazioz jokatu, eta horrek tentsioak sortu ditu. Bere iritziz, fronte bat egon da, eta berak gaitzetsi egiten du halakorik. Bere iritziz, oinarrizko printzipioetako bat parte-hartzea da. Ez daki zenbat denbora hartuko duen, baina beharrezkoa da. Oro bat, esan du ikasi beharra dagoela parte-hartze horretatik batzuetan ez dela norberak nahi duena lortzen.

Zenbait jendek kalte ekonomikoak jasan ditu, proiektuaren sustatzaileek, hain zuzen ere. Hala ere, parte-hartzearen alde daude, baina oso argi izan behar dugu nola garatu parte-hartze prozesu hori. Bere iritziz,



aitzindariak ez du 'marka' jakin batek izan behar, eta herritar guztiei zabalik egongo den prozesua izan behar du.

### Dubreuil jn.

Mozioa eta erabilitako moduak errespetatzen ditu. Otzana da eta konbentzitzen saiatzen da. Alabaina, aurka bozkatuko dute. Izan ere, bere iritziz, borondatea ona izanik ere, plataformak udala eraso du modu txarrean, eta zenbait agerkaritan jaso diren oharrak eta esaldiak aipatu ditu eredutarako: "iruzurrezkoa, prebarikazioa, erabilera okerrak, gehiegikeriak, eta abar".

Epaiek ebatzi dute ez dela irregulartasunik izan prozeduran, arrazoia eman diote udalari. Hala ere, eta epaiak ezagututa ere, 2010eko uztailean, eta udalaren komunikatuaren ondoren, plataformak zioen udala herritarrek nahasi nahian zebilela. Udalak proiektuarekin aurrera jarraitu asmo zuela esan zuten, eta udalak gezurra esan zuela.

Bere iritziz, kostu judizialak barkatzen badira, edozeinek eraso dezake udala, eraso hori dohainik aterako baitzaio. Eskuzabaltasuna eman daiteke baldin eta egoera baretzeko baliagarria bada, baina ez du, plataformak uztailean egindako adierazpenak kontuan hartuta, horretan sinisten.

Plataformaren azken komunikatuak herritarren parte-hartzea du hizpide, eta beraiantzat ordezkari demokratikoak ez du baliorik. Plataformak alde bakarreko erabakiak hartzea du hizpide, herritarrek parte hartu gabe.

Bere eginkizuna horixe dela uste du, "ordezkari demokratiko" horretan oinarrituta.

Azkenik, plataformak uztailean baieztatutakoa ekarri du: "zinegotziak boterean egotea ez dago herritarren esku, boterean iraunarazten dituzten alderdi politikoen esku baizik".

Alderdi-mailan, egia da Batzorde Erregionalak eta Batzorde Nazionalak aukeratzen dituztela, baina, azken finean, herria da aukeratzen dituen.


Zintzoa da mozioaren asmoa, baina bere iritziz argi eta garbi eraso diote instituzioari. Kostu politiko eta ekonomikoak daude, ez soilik kostu judizialak, baita gaiaren inguruan lanean jardun diren udaleko teknikarien makina bat ordu luze ere. Bere iritziz, kostu judizialek ez dute inor itoko.

Denek dugu justiziarako eskubidea, baina kostuek ez dute inolako loturarik justiziarekin.

Udalak zabalduko informazioari dagokionez, bere iritziz udalak herritarrei informazioa eman behar die, batez ere gai polemikoen inguruan. Herritarrek horren berri izanda, plataformak gaur egun zenbateko babesa duen ikusi beharko litzateke.

Bat dator Maiza andrearekin honek Oiangu proiektuaren inguruan emegazioa dagoela esaten duenean. Beraiek, ordea, ez dira parte-hartze prozesu ireki eta zabal bat bideratzearen aldekoak tokiko parte-hartzeari buruzko ordenantza onartu arte.





### Uranga jn.

"Oiangu Bizirik" plataformari buruz esan du 2005ean sortu zen gatazka Gobernu Batzordera eraman zela. Erantzun zitzaien hauteskudeetara aurkezteko, eta hauteskundeak irabazteko.

Gobernu-batzordeak dena erabaki du. Plataformak proposatutako guztia atzera bota du.

Bere iritziz, tamalgarria da berak orritxo batzuk atera behar izatea udalak, zergadunen kontura, kostu handia izan duen informazio-buzoiraketa egin duela herritarrei jakinarazteko.

### Gonzalez jn.

Bere iritziz, gauza positibo guztiak aintzat hartuta, adostasunera hel gaitzke. Alkateak 'aurrekaria ezarriko litzatekeela' esan du; horrenbestez, aurrekari ona da jendeari erakustea hobe dela hitz egitea auzitan ibiltzea baino.

Hitzen kontua baldin bada, alda daitekeela esan du. Guztiok egin ditugu hutsak.

Norbaitek hondoa jo badu, hori ere kontuan hartu beharko litzateke, gaur Oiangu baita aztergai, ez soilik plataforma.

Berriro ere esan du plataformarekin eskuzabaltasunez jokatzea litzatekeela.

Bere iritziz, plataformak ez du barkamenik eskatu behar, ahaleginak egin behar dira. Zer gertatuko da plataformari zorra barkatzen bazaio? Ezin jakin, baina, bere iritziz, merezi du saiatzeak. Gatazka baretu asmo duen mozioa da.

Zorra barkatzea onartzen ez bada, zer egin behar da gatazka baretzeko? Iritzia kontuan hartu behar dela pentsatzen du, nahiz eta hautes-ordezkaritarik eduki ez.

Nola justifika daiteke gobernu-taldeko gehiengoak hainbeste diru erabiltzea gobernu-taldearen iritzia edo jarreraren berri ematen, eta herritarren beste gehiengo bati zorra ez barkatzea?

Bere iritziz, alde bozkatzuz gero, aurrerapausoa izango da, eta aurka bozkatzuz gero, berriro ere galdetu du ea zer egingo den arazoa konpontzeko.


### Alkate jn.

Bere iritziz, zorra barkatzetik kanpo, bada zer landu.

### Asenjo jaunak

Esan du, izandako esku-hartzeetan ez dela erabili 'porrot' kolektibo handia bezalako terminorik. Bere iritziz, zorra barkatzeak gatazka erakusten duela; hortaz, mozioaren alde bozkatzuko dutela, nahiz eta beraiek mozioa beste modu batera aurkeztuko luketen.

Dubreuil jaunari erantzun dio baietz, berak dioen bezala, subiranoak direla gobernatzeko, baina gure buruari galdetu behar diogula nola gobernatu nahi dugun. Ildo horretan, bere iritziz, adostasun bat bilatu



beharko litzateke, eta gainera 'Oiangu Bizirik' plataformak ez du diru-laguntzarik jaso; areago, plataformak hainbat heziketa-ekitaldi antolatuta ditu, eta ez du diru-laguntzarik jaso. Eragozpenik sortzen ez duten taldeei soilik laguntzen zaie diruz.

#### Dubreuil jn.

Ez du uste 'eragozpena' denik diru-laguntza ematea baloratzeko irizpidea. Bere iritziz 'udal-intereseko elkarteak' izeneko irudia landu da, eta horren barruan argi eta garbi definitzen da zer hartzen den udal-intereseko elkartzat, zer diren udalarekin lankidetzan diharduten entitateak eta elkarteak, eta ez udalaren kontra diharduten elkarteak.

Berari, zinegotzia den aldetik, diru-laguntza jasotzen duten beste elkarte batzuek eragozpena sortzen diote, ematen duten lanagatik, parte hartu nahi dute eta batzuetan kritikoak dira. Ez zaie, hargatik, diru-laguntza ukatzen, lan egiten baitute, eta udalarekin lankidetzan jarduten baitira.

#### Asenjo jaunak

Esan du Oiangu Bizirik plataforma ekintza didaktiko bat antolatu zuela, eta ez zitzaiela diru-laguntzarik eman, politika egiten ari zirela argudiatuta.

#### Dubreuil jn.

Bere iritziz, ez da udalarekin elkarlanean diharduen elkarteak; aitzitik, kritikatu, harriak bota eta trabak jartzen ditu. Berak ez du esan politika egiten dutenik.


Bere iritziz, gobernu-batzordean erabakiak gehiengo hartzen direla aipatzean, bereizi beharra dago gai batzuen eta besteen artean; gai garrantzitsuak eta transzendentak osoko bilkurak hartzen ditu. Oiangu buruzko akordioak osoko bilkurak hartu ditu, eta herritarrekiko komunikazioa eta horiei helarazi beharreko informazioa, betebeharra izanik, gobernu-batzordeak burutu du.

Garrantzitsutzat jotzen du jakitea zer den udala, zein den bere jardura, eta argudio faltsuak erabilia instituzioa etengabe erasotzen denean, bat dator alkate jaunarekin: horrek ezin du hutsaren hurrena izan.

Kontua ingurumenekoa bada, hitz egin behar da, egoera hobetzen saiatu behar da; baina, instituzioari eta bertako teknikariei erasotzen bazaie, udalak ezin du besoak uztarturik gelditu, instituzioa defendatu behar da.

Berari ez zaio gustatzen bere semeak pentsatu ahal izatea aita 'prebarikatzailea' dela. Bere iritziz, Ordiziako gizarte-partaidetza aberatsa da, eta parte-hartze hori ez da soilik osoko bilkuran gertatzen. Udalak sortutako 'aholkularitza-kontseiluetan' lan egin daitekeela dio, horixe dela joera; denek egiten dute lan, ezadostasuna erakuts dezakete, baina adostu egiten dute. Onartezina da etengabe kritikatzeko aritza, eta informazioa manipulatzeko eta gezurretan aritza. Herritarren partaidetza aurrera doa, baina erritmoa udalak finkatzen du.

Harro dago Ordiziaren partaidetzarekin, jendearekin, lankidetzan dihardutenekin; izan ere, asko baitira.



### Gonzalez jaunak

Esan du mozioaren asmoa ez dela diru-laguntzen politika eztabaidatzea. Kontua da, eskubidea al du udalaren irizpideekiko bestelako pentsamoldea edo jarduna duen elkarte batek diru-laguntza jasotzeko? Bere iritziz, zilegi da bestelako iritzia izatea.

### Dubreuil jn.

Dubreuil jaunak esan du bidezkoa ez ezik, mesedegarria dela.

### Gonzalez jaunak

Berriro ere aipatu du guztion dirua erabili dela udalak bere informazioa emateko, eta bere iritziz, arrazoi horrengatik beragatik barka dakioko zorra plataformari. Testuak adostasunik lor dezakeen galdetu du, baita trukean plataformari jarrera-aldaketa eskatu behar bazaio ere.

### Dubreuil jn.

Ez du uste jarrera-aldaketa zorra barkatzearen ondorioz etorriko denik.

### Maiza Andreak

Argitu nahi du diru-laguntzak emateko indarrean dauden arauak ondo iruditzen zaizkiola. Alabaina, argitu nahi du 'Oiangu Bizirik' plataformak D'Elikatuzen urari buruzko erakusketa proposatu zuenean, berak horretan alderdi positiboa antzeman zuela, eta Kultura Atalak diru-laguntza ematea erabaki zuela; erabaki hori gaitzetsi egin zuen alkateak.

Berak ongi bereizten ditu kontu batzuk eta besteak. Bidea zein den oso argi du, baita horretarako moduak ere.

Berak alkatearen erabakiari men egin zion, baina uste du proposamenaren balorazioak egiterakoan, ez zitzaiola batere onerako iruditu diru-laguntza ukatzea, Oiangu Bizirik plataformarekin izandako hartu-emanak oso gogorrak iruditu arren. Bere asmoa da kontuak bereizten jakitea.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 4 (EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 6 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena ez du onartu.**





Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

### Gonzalez jaunak

Aurreko puntuarekin duen loturagatik, puntu hau aurreratzea eskatu du, plataformako kideek, lanera joan behar izanik, puntuaren eztabaidan egoteko aukera izan dezaten.

## **8.- Oianguren eraikina eta haren baitakoak aprobetxatu eta ustiatzeko esleipenaren inguruko ebazpena.**

### Proposamena

2010eko urriaren 1ean egindako saioan Udalbatzak, besteak beste, akordio hau erabaki zuen:

1. 2010eko maiatzaren 24eko Udalbatzaren akordioko 1) puntua (2005eko otsailean Ikengu 05, SL, sozietateari esleitutako onarpena berreskuratzekoa) baliogabetzea; modu horretan, esku-hartzeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen 84. artikularekin lotutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bategineko 256.2. artikuluan ezarritako entzunaldi-izapidearen aurretiko egoerara eramanez; hala badagokio, onarpena berreskuratu eta eteteko akordioa onartu aurretik.

2.-Tolosako Jabetza-erregistrotik jabari publikoko finkako titulartasunak eta kargen ziurtagiria ateratzea, administrazioak emandako onarpenarena eta hura grabatzen duten ondorengo inskripzioena ateratzeaz gain.


3.-Aurrez aipatutako erregistroko ziurtagiriak jaso ostean, titularrei entzunaldia ematea, onarpenaren eskubide eta kargen inguruan bertan agertzen denari buruzkoa; hala badagokio, haren betetzean subrogatzeko eskaintza egin dezaten edo, bere eskubideei so, bertan ager daitezkeen eskubide edo kargen inguruan uste dutena azal dezaten.

4.-2010eko maiatzaren 24ko Udalbatzaren Akordioko 2) eta 3) puntuak mantentzea, abala gauzatzeari eta parkean eragindako kalte-galeren balioespenari buruzkoak.

5.-IKENGU 05, SL, eta ELKARGI SGR sozietateei etete honen berri ematea, jakinarazteko xede bakarrekin. Hala, arestian aipatutako erregistroko ziurtagiria hartu ondoren entzunaldi-izapidea emango dela adieraziko zaie, espedientean edozein momentutan agertzeko gaitasunaren eta legeaz egin ditzaketen alegazio guztiak egitearen kalterik gabe”.

Tolosako jabetza-erregistrotik eskuratutako titulartasunen eta kargen ziurtagirian, Oianguko Parkearen onarpen administratiboaren gainean, jarraian aipatzen diren kargen inskripzioa egiaztatzen zen: ELKARGI, S.G.R. sozietatearen aldeko hipoteka-eskubide bat, eta bahitura-adierazpen prebentziozkoa Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren alde.

Horren ondorioz, aipatutako eskubide eta kargen titularrei entzunaldia eman zitzaie, hala bazegokion, hura betetzera subrogatzeko eskaintza egin zezaten edo beren eskubideei so, bertan ager zitezkeen eskubide edo kargen inguruan uste zutena azal zezaten. Administrazio-espedientean agertzen denez, ELKARGI, S.G.R. sozietateari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari, hurrenez hurren, behar bezala egin zitzaie jakinarazpena 2010eko urriaren 4an.



Horretarako emandako epearen barruan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek ez zuen inolako alegaziorik aurkeztu eta, bestalde, ELKARGI, S.G.R. sozietateak idatzi bat aurkeztu zuen 2010eko urriaren 13an, 3.135 erregistro zenbakia duena, jarraian agertzen diren kontuak aipatuz:

1). Jakinarazten du, idatziaren dataz, aipatutako onarpenari dagokion hipotekak 416.560,25. euroko arriskua baitaraten duela alegazioa egiten duen sozietatearen aurrean.

Ordiziako Udalaren, IKENGU 05, S.L. emakidadunaren eta ELKARGI S.G.R sozietatearen artean adostutakoaren arabera, Oianguren eraikina eta hartatik Ordiziari dagozkionak ustiatzeko onarpenari dagokion administrazio-kontratuan gerta daitezkeen gatazkak ebazteko 2008ko maiatzaren 30eko hitzarmenean, IKENGU 05, S.L. sozietateak onarpena alde batera utzi ostean, emakidadunari edo, ELKARGI S.G.R. sozietateak aldeko eskubideak izango balitu, hari, Udalak Lehen Hitzartzearen B atalean ezarritako kopurua ordaindu beharko dio, igarotako onarpen urteen araberako taula bati eta onarpenean aurreikusitako hotel-jatetxean egindako inbertsioari jarraiki. Lehen Hitzartze horretako E atalean ezartzen zenez, IKENGU 05, S.L. sozietateak egindako gainerako inbertsioei dagokienez, Udalak ez luke ezer ordainduko.

Udal-teknikariek egindako txosten ekonomikoaren arabera, IKENGU 05, S.L. emakidadunak ez du inolako inbertsiorik egin aipatutako hotel-jatetxean; horrenbestez, onarpena bertan behera geratu ostean, Ordiziako Udalak ez du ordainketarik egin beharko, ez emakidadunaren alde ezta ELKARGI, S.G.R. sozietatearen alde ere, nahiz eta emakidadunak betebeharrak dituen berme-baltzuari dagokionez.

2). Jakinarazten du ELKARGI, S.G.R. sozietateak, aurreko idatzietan jakinarazi zuenez, administrazio-onarpenean ezarritakoak betetzera subrogatzeko inolako interesik ez duela.

Aurreko adierazpena espedientean eta dagokion txostenean jasotzen da, onarpenaren hartzaileri buruz dagokion eteteari so.


3). Idatzian azaldutako arrazoiak direla medio, ELKARGI, S.G.R. sozietateak ulertzen du, udalbatzan 2010eko urriaren 1ean onarpena berreskuratzeko akordioaren baliogabetzea, 8085/9929-1 zenbakidun abala (120.000 eurokoa) gauzatzeari dagokion baliogabetzeko akordioarekin batera osatu beharko litzatekeela.

Akordio horren ebazpena dagoeneko Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkideko 66. artikuluan funtsatzen zen. Horren arabera berdin mantendutako edukiak dituzten ekintza eta izapideak berdin mantendu behar dira.

Kasu honetan, abalaren gauzapena justifikatuta dago. Alde batetik, onarpenaren xedeak jasaten zuen narriatze egoeragatik eta, beste alde batetik, sozietate emakidadunak hura alde batera uztearen berri eman zuelako. Emakidadun horrek osatzen du aurrez aipatutako Hitzarmenaren Lehen Hitzartzean zehazki aurreikusten den kasua. Hitzarmena ELKARGI, S.G.R sozietateak, IKENGU 05, S.L. sozietateak eta Ordiziako Udalak sinatu dute.

Hala, Lehen Hitzartze horretako A atalean espresuki adostu zen, edozein alde onarpena utziz gero, Udalak bosgarren azalpenean adierazitako abala kobratuko zukeela ELKARGI, S.G.R. sozietatearen eskutik.

Horrenbestez, Legean ezarritako entzunaldi-izapidea betetzearen betebeharra dela-eta berreskuratze-



akordioa baliogabetzeak ez du eragiten abala gauzatzeko akordio horren mantenuan, izan ere, berez justifikatzen baita emakidadunak administrazio-onarpena alde batera uzten duela jakinarazten duen momentutik.

4). Aurreko idatzietan adierazitakoa errepikatzen du, hau da, abalaren baliozkotasuna Ordiziako Udal Txit Gorenak hipotekaren iraupena onartu edo bermatzearen baitan (hala adierazten da literalki) zegoela. Alegazioa egiten duenak Udalak hipotekaren iraupena bermatzeko erabiliko duen modua zein den ezagutu gabe, mailegatutako abala ez-exekutagarri litzatekeela adierazten du, baldin eta onarpenari dagokion hipotekaren bidez bermatutako zenbateko osoa betetzen duen berme eraginkorra ematen ez bada (370.000 euro oinarrizkotik gehi 210.900 euro gehigarrienak).

Abala administrazio-onarpena ez betetzeagatik eratorritako balizko kalte-ordainak bermatzera bideraturik zegoen, sozietate emakidadunaren aldetik Ordiziako Udalaren aurrean. Hala adierazten da IKENGU 05, S.L. sozietateak eta Udalak 2005eko apirilaren 29an sinatutako administrazio-kontratuko II.3 atalean eta 2004ko urriaren 28an onartutako baldintza ekonomiko eta administratiboen agirian. Azken hori onarpenak baldintzaturik zegoen.


Aipatutako administrazio-kontratuko II.3 atalean adierazten denez, kalte-galerarik balego esleipendunak onarpena alde batera utzi beharko luke eta, hori da kasu honetan gertatzen dena; gainera, kalte-galera horien existentziak berez justifikatzen du abalaren exekuzioa.

Baldintza horiek espresuki baitaratu zituen ELKARGI, S.G.R. sozietateak 2008ko maiatzaren 30ean gatazkak ebazteko adostutako hitzarmenean. Hitzarmen horretan alde guztiek abala exekutzeko baldintza zehatzak adostu zituzten, horien artean, edozein arrazoi zela medio onarpena uztearena.

Horren ondorioz, abala bermatzen duen xedeak, hau da, esleipendunak Administrazioaren aurrean onarpena ez betetzetik eratorritako kalte-galerak, ez du inolako loturarik IKENGU 05, S.L. sozietateak eta ELKARGI, S.G.R. sozietateak ezarritako hipoteka-bermeekin, lehenak bigarrenaren gainean eragindako arriskuak estaltzekoak.

Aldez aurretik azaldu denari jarraiki, hiru aldeek sinatutako ebazpen-hitzarmeneko Lehen eta Bigarren Hitzartzeen arabera, Udalaren betebeharrak, hala bazegokion, esleipendunak onarpenean igarotako urteengatik eta Hotelean egindako inbertsioengatik ordaindu beharreko kopuruak ELKARGI S.G.R. sozietatearen eskuragarri ezartzea da (baldin eta, bere alde eta IKENGU 05, S.L. sozietatearen kontra kreditu-eskubiderik izango balu). Hotel horretan inbertsorik egin ez zela azalduta, Udalak ez du kopururik ordaindu behar, ez sozietate bati ez besteari, ELKARGI, S.G.R. sozietatearentzat baliagarri izan daitekeenik IKENGU 05, S.L. sozietatearen aldean izan ditzakeen eskubideak berreskuratu eta bermatzeko.

5). Berreskuratze-akordioaren baliogabetze "ezohikoa" ELKARGI, S.G.R. sozietateak, prozeduran zehar egindako alegazioen eta 2010eko maiatzaren 24ko udalbatzako akordioaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ondorio dela alegatzen du, eta onarpena artifizialki "biziberritzeko" eta, modu horretan, hipoteka berpizteko" asmoz egindakoa dela, abalaren exekuzioa justifikatzeko helburu bakarrarekin, izan ere, zeinaren iraupenaren baitan zegoen haren baliozkotasuna (hipotekaren iraupenaz ari dela ulertzen da). Azkenik, ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuen 264.d eta 266.6 artikulua aipatzen ditu, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bategina, elkarren arteko akordioz onarpena bertan behera uzteko iradokitze xedez.



Ezinezkoa da alegazioa egiten duenak aurkeztutako tesia aintzat hartzea, dagoeneko azaldu diren arrazoiak direla medio. Abalaren exekuzioa berez justifikatzen da eta ez du inolako loturarik hipoteka-bermearekin, gatazkak ebazteko hitzarmenean hiru aldeek zehazki itundutakoaren arabera eta emakidadunari dagozkion agiri eta kontratuan ezarritako baldintzekin bat etorriz, zeintzuen arabera, onarpena alde batera uztea entregatutako abalak bermatutako kalte-galeren kausa automatikoa baita.

Berreskuratze-akordioa baliogabetzen da, esku-hartzeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkideko 84. artikuluekin lotuta, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bategineko 256.2. artikuluan ezarritako entzunaldi-izapidearen aurreko unera eramanez. Baliogabetze egoki arrazoitzen da baliogabetze-akordioan eta aipatutako manuetan oinarritzen da; horrenbestez, bestelako arrazoiak baztertu egin behar dira eta, are gehiago "abalaren justifikatzeko helburua", izan ere, behar bezala justifikatzen baita argudiatutako arrazoi guztiengatik.

Elkarren akordioz onarpena bertan behera uzteari dagokionez, eta horretarako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bateginean azaltzen diren 264.d eta 266.6 artikuluek aipatzeari dagokionez, alegazioa egiten duenak onarpena bertan behera uzteko legezko kasu hori ez dela hemen ematen ahazten du, baizik eta 264 artikuluko horretako J hizkian aurreikusten dena, hots, emakidadunak kontratuzko funtsezko betebeharrak uztea, aldebakarreko ukatzea eta ez betetzearena.

Nekez egon daiteke bien arteko akordiorik, izan ere, emakidadunak, aurrez aipatu bezala, hainbat hilabetez onarpenaren xedea fisikoki utzi eta narriatzen uzteaz gain, Administrazioari formalki jakinarazi baitio uzte edo ukatze aldebakarreko hori.

Uzte hori kontuan izanik, aipatutako 264.j artikuluko horrekin batera Testu Bategin horretako 265. artikuluko 2. paragrafoa aipatu behar da, zeinaren arabera ez da automatikoki ematen kontratuaren etetea, baizik eta hura exekutatzeko eskubidea hautazkoa izango da hura etetea eragin duen egoera sortu ez duen aldearentzat.

Kasu honetan, esleipendunak onarpena alde batera utzi du eta etete hori exekutatzeko eskubidea Udalari dagokio eta, hori da, hain zuzen, espediente honetan adierazi nahi dena.


Udal-teknikariek egindako txosten ekonomikoa ikusirik, non esleipendunak denbora luzez onarpena uztearen eraginez sortutako kalteak agertzen baitira (kostu horien balioespena 181.667.92 eurotan ezartzen da, BEZ barne).

2010eko maiatzaren 7an 1.423 zenbakiarekin sartutako erregistroa barneratzen duen idatzia ikusirik (non IKENGU 05, S.L. sozietateak Ordiziako Udalari formalki jakinarazten baitio onarpena ustiatzearen ukatzea).

2005eko apirilaren 29ko kontratuz IKENGU 05, S.L. sozietateari esleitutako administrazio-onarpena eteteko eta onarpen horren helburua berreskuratze-arrazoiak daudela ulertzen da, jarraian agertzen den etete-proposamenean zehazten diren ondorioekin.

#### ETETE-PROPOSAMENA:

1.- 2005eko apirilaren 29ko kontratuz, Oianguren eraikina eta Ordiziari hartatik dagozkionak ustiatu eta aprobetxamendurako IKENGU 05, S.L. sozietateari esleitutako administrazio-onarpena etentzat ematea.



2.- Etendako onarpenaren helburua jabetza osoan berreskuratzea, udal-zerbitzuei agindua emanaz jabari publikoko ondareak mantendu, zaindu, seguru izan, erabili eta ustiatzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak egin ditzaten.

3.- IKENGU 05, S.L. sozietateari onarpenean eragindako kalte-galeren itzulketa eskatzea, udal-teknikariak egindako balioespenaren arabera, ELKARGI, S.G.R. sozietateari exekutatuak abaletik gora egiten duen zenbatekoan.

4.- Etete hau sinatu ostean, Tolosako jabetza-erregistrora horren frogatzea, administrazio-onarpenaren inskripzioa bertan behera uzteko adierazita, hura etetea dela medio eta inskribatutako eskubidea erabat baliogabe geratzearen ondorioz eta, horren eraginez, bertan inskribatutako funts, karga eta grabamenak beretan behera utziz, 79 LH, 173 eta 175.3 RH artikuluetan eta haien bat datozenetan ezarritakoaren arabera; hori dena, adieraziz udal-zerbitzuek egindako txostenen baitan eta etete hau eragin duten arrazoen arabera, Administrazioak ez duela kopuru edo aldizkako kalte-ordainketarik egin behar emakidadunaren alde, horrenbestez, ez da zilegi inolako esleipenik bertan behera uzten diren eskubide eta kargen titularren alde.

5.- Etete honen berri ematea prozedura honetan interesdun gisa agertzen direnei, honekin administrazio-bidea amaiturik geratzen dela adieraziz eta, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezaketela Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea izango dutelarik jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik hasita edo, aukeran Berraztertze Errekurtsoa ezar dezakete, hilabete bateko epearen barnean jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik hasita.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

#### Alkate jn.

Puntua hurrengo osoko bilkurarako (edo, akaso, ezohiko bilkurarako) uztea proposatuko duela esan du. Izan ere, Ikengu 05 SLk idazkia aurkeztu du, 2010eko maiatzeko Osoko Bilkuraren erabakia baliogabetzearen ondorioz, berriro ere ustiapenaren emakidaduna dela, eta gauzatutako 120.000 €-ko abala itzul dakiola adierazteko.

Horren inguruko txosten juridikoa egin da, eta 10 egun balioduneko epean espedientean interesa duten guztiei helaraziko zaie. Denbora-tarte hori igarota, emakidaren ebazpenaren inguruko erabakia hartu ahal izango da, betiere, prozeduraren formatan egon daitezkeen arazoak saiheste aldera.


#### Idazkari and.

Arrazoitutako alderdi juridikoei eta horien inguruko erantzunei buruzko argibideak eman ditu.

#### Alkate jn.

Puntu hau hurrengo osoko bilkurarako uztea proposatu du.





### Puntua atzeratzeko bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3,PSE-EE (PSOE) 3,EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena atzeratzea onartu du.**

#### Leunda jn.

Zutoin eta sareetan hainbat gastu egin dela esan du. Horrez gain, badaki, jakin ere, gobernu-taldeak, edo gehiengoak behintzat, praktiketako kantzari eutsi nahi diola, entzun baitu kantxa horren ustiapenaren esleipena egin asmo dela.

Beste behin ere, txotxongilo ikusten du bere burua.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

#### **4.- “Oiangualde 30” HIEko b.20.1. lursailaren xehetasun azterketa behin betiko onartzea.**

##### Proposamena

Goierrri Fundazioak sustatutako eta LKS Ingenieria S. Coop.ek egindako Plangintzako Arau Subsidiarioen “30- OIANGUALDE” Hirigintza Interbentzio Eremuko b.20.01 lursaileko Xehetasun Azterketa onartzeko espedientearen berri ematen da.


2010eko irailaren 17an 818 zenbakiko Alkatetza Dekretuari hasierako onarpena eman zitzaion, Udaleko iragarki-oholean eta GAOn irailaren 23an 183 zenbakian argitaratu zen jendaurrera legez ezarritako epean,eta 2010eko irailaren 21ean egunkarian, eta zehaztutako epean ez dute alegaziorik aurkeztu.

2010eko urriaren 7ko Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailaren aldeko txostena eta sustatzaileak Xehetasun-Azterketaren Testu bateratua aurkeztu duela ikusita.

2010eko urriaren 18an Udaleko Arkitektoak aurkeztutako txostena,bertan, sustatzaileak aurkeztutako idatziak agiriaren hasierako onarpenerako baldintzetara egokitzen direla zehazten da.

2010eko urriaren 20ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko aldeko erabakia ikusita, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA



**1.- Goierri Fundazioak sustatutako eta LKS Ingenieria S. Coop.ek egindako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen "30- OIANGUALDE" Hirigintza Interbentzio Eremuko b.20.01 lursaileko Xehetasun Azterketaren Testu Bateratua behin betiko onartzea.**

**2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko erabakia, arautegi osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Xehetasun Azterketaren sustatzaileari jakinaraztea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Xehetasuneko azterlanak b.20.1 lursaila 3 azpi-lursailetan (P1, P2 eta P3) banatzen duela esan du, aipatu lursailean udalak eta fundazioak duten partaidetza-kuotaren arabera, % 73,92 eta % 26,08 hurrenez hurren, P1 eta P2 azpi-lursailak udalari esleitzen dakizkion, eta P3 azpi-lursaila, berriz, fundazioari.

Kontua hiru azpi-lursail sortzea eta antolatzea da, berrikuntzarekin eta garapen teknologikoarekin lotura duten proiektuetarako.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3,PSE-EE (PSOE) 3,EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**

Asenjo jaunak


Bidegorriaren gaia kontuan hartu den argitu nahi du.

Alkate jn.

Baietz esan dio.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.



## **5.- Oiangualde b.20.1. lursaileko 9.1 azpilursailaren azalera eskubidearen esleipenerako Klausula ekonomiko-administratiboen Plegua onartzea. Esleipenerako lehiaketaren oinarriak onartzea.**

### Proposamena

2010eko urriaren 29ko ohiko osoko bilkuran behin betiko onartu zen "30-Oiangualdea" Hirigintza Interbentzio Eremuko b.20.1 lursailaren Xehetasun Azterketaren berri eman dute.

Horrekin batera 2010eko urriaren 28an "30-Oiangualde" HIEko b.20.1. lursailaren zatigabeziaren zatiketa-idatziaren berri eman da, bertan 3 azpilursail sortzen dira, P1, P2 eta P3, eta P1 eta P2 azpilursailak Ordiziako lursailari dagozkio, lursailaren %73,92ko kuotan oinarrituta, eta Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari P3 azpilursaila, %26,08ko kuotan oinarrituta.

Sektorerako onartutako Plan Partzialean finkatutako erabileraren arabera, eta Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006ko 115 artikulua arabera, eta Xehetasun Azterketako P1 azpilursaila udal lurzoruko ondare dela kontuan hartuta, ondarearen xedea "sustapenerako jarduera ekonomiko edo interes publikoko jarduera" kontzeptuaren barnean sartzen da.

Aurreikusitako erabileren arabera eremuan sustapen-lanak egiteko udal interesa ikusita, P1 azpilursailaren azalera eskubidea uztea egoki ikusten da, ikerketa, garapen, berrikuntza teknologiko eta laguntza teknologikorako eraikin bat eraikitze edo ezagutza eremuko edozein zientzia arloko zabalpena egiteko eraikin baterako.

### AKORDIO PROIEKTUA

1.- , Ikerketa, garapen, berrikuntza teknologiko eta laguntza teknologikorako zentro bat eraikitze edo ezagutza eremuko edozein zientzia arloko zabalpena egiteko eraikin bat egiteko "30-Oiangualde" HIEko b.20.1. lursailaren P1 azpilursailaren azalera eskubidearen lagapenerako Baldintza pleguak onartzea, hori guztia teknologiaren, kalitatearen eta lehiakortasunaren garapenera bideratuta.

2.- Azalera eskubiderako lagapenaren lehiaketa bidezko esleipenaren oinarriak onartzea.

3.- Lehiaketaren esleipena egiteko eskumena ematea Alkateari.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila


Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

#### Alkate jn.

Esan du, berriki (herenegun), LKS Inmobiliariak, puntu honekiko, azalera-eskubideagatik ezarri beharreko kanona baloratzeko egindako edo proposatutako balorazioa argitu zela.



Esan du, halaber, baldintza-plegua eta lehiaketako oinarriak zerbait aldatu direla, eta dagoeneko teknikariek burutu dituztela. Duela gutxi LORTEKi horien kopia bat helarazi zaio, baloratu eta azter ditzan.

Hori dela-eta, alkate jaunaren iritziz, alderdi eta zinegotzi guztiek proposatu den dokumentua izan dezaten, eta gaiari buruz gogoeta areagotze aldera, ona litzateke denbora gehiago izatea. Horrenbestez, puntu honen eztabaida hurrengo osoko bilkurara atzeratzea proposatu du.

### Puntua atzeratzeko bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3,PSE-EE (PSOE) 3,EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak:0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena atzeratzea onartu du.**

### Leunda jn.

Esan du garapen-arlo garrantzitsua dela, eta ez duela horri buruzko informaziorik 2007az geroztik, plan partziala onartuz geroztik, alegia. Bere iritziz, informazio gehiago egon beharko litzateke, batez ere gai garrantzitsuei dagokienez.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.


### **6.-2011ko ekitaldirako taxien tarifak onartzea.**

#### Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2011ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

<b>2011ko HERRI BARRUKO TARIFAK</b>			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,1658	0,9911	18,9302
TARIFA 2**	3,1658	1,5806	29,7521

\* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.



\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan..

AGITAXek tarifen igoera justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, 2009ko urriaren 22an Udalbatzarrak onartuak hauek dira:

<b>2010ko HERRI BARRUKO TARIFAK</b>			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,1129	0,9745	18,6138
TARIFA 2**	3,1129	1,5542	29,2547

Gauzak hala, Plenorako Gaien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

**1.- Onartzea 2011ko auto-taxien tarifa aldatzea, esposizio-atalean esandakoaren arabera.**

**2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea..**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Esan du AGITAXek 2011ko tarifa-proposamenak aurkeztu dituela, udalaren osoko bilkurak onartu beharrekoak.

Igoera minimoa da. Zertan diren azaldu du.

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2,IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Dubreuil jn.

Akordioa GOIEKlra zergatik eraman behar den galdetu du. Bere buruari betidanik egin dion galdera da.

Iturrioz and.

Eman dion azalpenaren arabera, Goieki mugikortasunari buruzko foroa da. Hori dela-eta, Goiekik lantzen edo aztertzen dituen gaien artean dago taxiena, nahiz eta lizentziak udalak ematen dituen.



Jarraian, udalburuak hurrengo puntuari heldu dio.

## **7.- Udaleko izaera pertsonaleko datuen tratamendurako Segurtasun Agiria aldatzea.**

### Propuesta

Izaera pertsonaleko datuen tratamendurako Segurtasun Agiria aldatzea.

2010eko urtarrilaren 14eko osoko bilkuran izaera pertsonaleko datuen tratamendurako Segurtasun Agiria eta fitxategiak onartu ziren, eta horien ardura Ordiziako Udalak du.

2010eko apirilaren 30eko osoko bilkuran Segurtasun Agiriari aldaketak egin zitzaizkion eta udalaren kirol saileko lau fitxategi berri erantsi zitzaizkion.

Une hauetan, Majori kiroldegia SLren instalazioetan sartzeko txartelak eta "Ordizian" Merkari Elkarteko txartelak bateratzeko lanetan ari dira, eta erakunde laguntzaile batek finantzatuko dituzenez txartel bateratu hauek, Kirol Saileko "Erabiltzaile" eta "Bazkide" fitxategietan Segurtasun Agiria aldatzea beharrezkoa da.


### AKORDIO PROIEKTUA

#### **1.- 2010eko apirilaren 30ean onartutako izaera pertsonaleko datuak babesteko Segurtasun Agiria aldatzea:**

a) "Bazkide" eta "erabiltzaile" fitxategietan eta "datuak uztea" ataletan *erakunde laguntzaileei* sartzea (agiriko 80 eta 81 orr.)

b) Aipatutako fitxategientzako baimena lortzeko klausula aldatzea (44 eta 45 orr.)

**Datuak babesteko Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu zuk emandako datu pertsonalak "BAZKIDEAK" izeneko fitxategian sartu ditugula. Aipatu fitxategiaren titularra ORDIZIAko Udala da (Kale Nagusia 24, 20240 Ordizia). Fitxategi horren xedea honakoa da: instalazioetara sartzeko, kuotak ordaintzeko, zure intereseko izan daitekeen informazioa bidaltzeko beharrezkoa den informazioa kudeatzea . *Zure datuak erakunde laguntzaileek jaso ditzakete, aipatutako jarduerak gauzatzeko.***



Oroitarazten dizugu datuetara sartzeko, zuzentzeko, indargabetzeko eta aurka egiteko zure eskubideak gauzatzeko aukera duzula, goian aipatutako helbidera jakinarazpen idatzia igorrita.

## 2.- Erabaki hau GAO n argitaratzea

## 3.- Aldaketa behar bezala jasotzeko helburuarekin Datuen Babeserako Euskal Agentziari iragarki honen berri ematea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

### Alkate jn.

Aldaketa horren atzean ezagutzera emango den proiektu bat dagoela esan du (kiroldegiko txartela eta Ordiziako dendetan erosketak egiteko txartela bateratzea), eta aldaketa proiektuari forma emateko proposatzen dela.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**




Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

### **9.-Galde-eskeak.**

Asenjo jaunak galdetu du nola dauden bidegorri-tarteen proiektuak.

Alkate jaunak horri buruzko argibideak eman dizkio, eta esan dio udal-aparejadorea arduratzen ari dela kontu horretaz.

.....



Dubreuil jaunak esan du irisgarritasun-laguntzetarako (igogailuak) arauen zirriborroa dagoela. Bere iritziz, denbora daramate proposamenaren zain; gaiari aurrerabidea eman beharko litzaioke.

Idazkariak esan du Administrazio Orokorreko Teknikaria (AOT) oporretan egon dela urri osoan. Itzultzen denean, gaiak lehenetsi beharko dira.

.....

Asenjo jaunak tabernei eta jatetxeei buruzko ordenantzaz galdegin du. Berak ordenantza hori aldatzea proposatu zuen.

Alkate jaunak erantzun dio aipatu ordenantza Arau Subsidiarioen zati dela, eta, hortaz, ordenantza aldatzeko prozedura oso luzea dela denbora aldetik. Aztertuko da.

.....

Asenjo jaunak galdetu du ea Escalante jauna dagoeneko 1. mailako praktiketako agentea den.

Idazkariak erantzun dio hiru hilabete barru izendatuko dutela praktiketako 1. mailako agente.

Asenjo jaunak galdetu du, hala ez bada, zergatik ari den alkate jauna harekin bilerak egiten zerbitzua berrantolatze aldera.

Alkate jaunak erantzun dio zerbitzuaren orduak aldatzen ari direla, astelehenetik ostiralera bitartean txanda bakoitzean udaltzain gehiago egon daitezten, eta asteburuetako orduak murrizteko.

Asenjo jaunak itsusi deritzo gaur egun oraindik ere 1. mailako agente lanetan diharduen pertsona bat egonda, oraingoz maila hori ez duenarekin bilerak egiteari.

Ez du argi ikusten asteburuetako lanorduak murriztea, herritarrek bizi duten segurtasun eza kontuan hartuta.

Gaizki iruditzen zaizkio moduak, eta gaizki ere udalak erabakiak hartzea Gobernu Batzordea kontuan hartu gabe.


Bere iritziz, asteburuetan zerbitzua indartu beharko litzateke.

Alkate jaunak erantzun dio asteazken honetan (herenegun) alderdi politikoekin batzartu zela gai horren berri emateko. Osoko bilkura hau bukatutakoan, berriro ere elkartuko dira gaia aztertzeko.

.....

Leunda jaunak uste du osoko bilkuraren azken ohiko bileran (urriaren 1a) galdetu zuela ea udaleko gazte-informatzaile Koro Ruiz Andreari Aldundiko teknikariak prestatutako eta landutako Gazteria Plan berriaren berri eman zitzaion. Baietz erantzun zioten, eta beste behin gezurra esan diote; izan ere, Ruiz andreak idazkia aurkeztu baitu, Gazteria Teknikariaren proposamen berriarekin ez dagoela batere ados adierazteko.





Alkate jaunak esan dio idazkian jasotako guztia ez dela egia.

Leundaren iritziz, ez da gaiaren inguruko hausnarketarik egin, ezta Gobernu Batzordean ere. Alkateak eta horren alderdi politikoak proposatutako gaia dela irizten dio.

Esan du Ruiz andreari ez zaiola bidezkoa iruditzen gazteria-teknikariaren postua egungo kirol-teknikariak betetzea.

Maiza andrearen iritziz, aipatu zen Aldundiaren eredia martxan jarriko zela, baina lana egokitu beharra zegoela lan hori gurea izan zedin. Eginkizun horretan, proposamenaren eraginpean dauden eragileak, pertsonak eta teknikariak hartuko dira aintzat.

Dubreuil jaunak ere plan integral baterako bidea egin behar genuela azpimarratu zuen.

Une honetan, gazte-informatzaileak esan dio gazteria-arloko erreferentea ez dela bera, Odilo Rivela baizik, kirol-teknikaria alegia.

Gatazka latza datorela esan du. Aipatu da Odilo Rivela arduratuko dela gazteriaren gaiaz, eta Koro Ruizi esan diote Odilo ez dela gazteria-teknikaria.

.....

Leunda jaunak esan du Barrena jauregian zintzilik dauden pankartek publizitatearen inguruan indarrean dagoen ordenantza urratzen dutela. Jakin nahi du ea udalak berak aipatu ordenantza beteko duen ala ez.

Dubreuil jaunak erantzun dio, kartelak atxikitzea dagoela debekatuta.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.